

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Jonek nahi du...



Xabier Etxaniz Erle

Duela bi urte Dani Martirenak eta Ana Ibañezek plazaratutako *Hankaz gora du amak mundua hura bezala*, oraingo hau ere liburu bitxia dela esan dezakegu.

Eta mamiarekin hasi aurretik formatua aipatu beharrean gaude. Esku artean hartzen duen edonork ikus dezake liburu honek ez dituela orriak, edo agian bai, eta akordeoi baten gisa testua eta imajinak pasatzen direla. Tolesdura bakoitzean kartoi kaxa bat dugu, goiko aldean testua eta kaxa barruan irudia osatzen duten elementu ezberdinak (hodeia egiteko kotoia; kartoizko hegazkintxo, euritako txikiak, zurezko sardexkak...). Hots, irakurleak, liburu arrunt baten aurrean izan beharrean, irakurtzeko eta jolasteko proposamen batekin egiten duela topo.

Liburuaren mamiari helduz gero, berriz, norberaren garapenaz, izan nahiaz, gogoei buruzko lana da *Jonek Jone izan nahi du hau*. "Baina handi izatera iritsi gabe, amets bat du bihotza beteta. Jon neska da, txiki txikitatik, oinutsik edo jantzita txaketa". Baina adierazpen horretara iristeko, azken orrian –azken kaxan– ageri zaigun adierazpen horren aurretik Joneren amets eta desioen berri izango dugu: "Handitan handi izan nahi du Jonek. Eta gauza gehiago. Gauza txikiak, eta handiak". Izan ere hasiera horrekin ekiten diote egileek Joneren desio guztien kontaketa.

Egileek 14 kutxetan zehar kotxe gidaria izan nahi duela erakutsiko digute, baita hiru zulo belarri bakoitzean, ameslari izan, abioneta pilotu, marinel... Eta hauetako proposamen

**Jonek Jone izan nahi du**

DANI MARTIRENA

Ilustrazioak: Ana Ibañez
Liburu iletsuak, 2017.
Haurrentzat

bakoitzean komentario batzuk irakur ditzakegu; marinel izan nahi duela dioenean esaterako: "Itsasoak zeharkatzeko, txaluparen oihalak puztuta, aurkitu nahi du Jonek itsaso hondoan gatzontzia ezkatututa. Jakin nahi du non den olatuen errota. Hori da Jonek handitan jakin nahi duena. Eta, boga boga, gero mundura egia bota". Komentario hauek agian jasoegiak gerta dakizkioke irakurleari, gauza gehiegi kontatzen espazio gutxiegi testua astun bilakatuz. Bestalde, testu horiek irakurle jasoagoentzat poetikoak eta irudikagarriak direla ezin da ukatu. Liburu hau, kontrazalean Asun Agiriaren moduan, "zure bihotzaren taupadak entzun eta garunak martxan jarri guran, gogoari libre uzteko gonbite luzea" baita; ez bakarrik darabilen gaietatik, baita izate hori –Jon neska da– kontatzeko erabili duten moduatik ere, poesia eta artea txertatuz. ■